

ERABAKIA, 2014ko AZAROAREN 14koa, UPV/EHUKO GERENTEARENA, HIRU LANPOSTU EGINKIZUNEN ESLEITZEAN ALDI BATEZ BETETZEKO DEIALDIA IRAGARTZEKO DENA, UNIBERTSITATE HONEN III TALDEKO LAN-KONTRATUDUN LANGILEEN ARTEAN.

UPV/EHUko Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonaleko eranskinean aipatzen diren lanpostuak hutsik daudenez, Gerentziak lanpostu horiek zereginak-esleitzean aldi batez beteko dela iragartzen du, hori guztia Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Lan Kontratuko Langileen III Hitzarmenaren 20.3 artikuluan adierazitakoarekin bat etorriz, eta UPV/EHUko Errektorearen 2013ko urtarrilaren 30eko Erabakiak eman dizkion ahalmenez baliatuz (erabaki hori gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko eta eskumenak eskuordetzeko da, eta 2013ko otsailaren 13ko EHAAn argitaratu zen).

OINARRIAK:

Lehena: Deialdiko lanpostuak zereginak esleitzearen bidez hornitzeko prozedura Euskal Herriko Unibertsitateko AZPko lan kontratadunen plangintza batzordearen, 2013ko uztailaren 4ko Akordioan araututakoa izango da; hots, administrazio eta zerbitzuetako pertsonaleko lan kontratadunei eginkizunak esleitzeko prozedura barematua ezartzen duen Akordioak. Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluaren 2013ko uztailaren 18ko bileran berretutakoa.

Aipatutako Akordioa ikus daiteke Administrazio eta zerbitzuetako langileen web orrialdean Hautakera eta hornikuntza. Barne deialdietako atalean.

Bigarrena: Eskabideak aurkezteko epea deialdia EHUKo web orrian argitatzatzen den hurrengo egunetik bost lanegunetan amaituko da, eta pertsonaleko gerenteordetzara zuzendu beharko dira, Euskal Herriko Unibertsitateko erregistro orokorrean aurkeztuz edo, era berean, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio-Prozedura bateratuari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak (azaroaren 27ko Estatu Aldizkari Ofizialean) 38.4. artikuluan jasotako beste edozein bide erabiliz.

Euskal Herriko Unibertsitateko erregistroak Euskal Herriko Unibertsitateko 2012ko maiatzaren 16ko erabakian daude jasota (2012ko ekainaren 18ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian), eta Interneteko helbide honetan: http://www.ehu.es/erregistroko_bulegoak.html

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Campusetan kokatutako erregistroen irekiera-ordutegia, astelehenetik ostegunera, 9:00etatik 13:00etarakoa izango da, goizeko ordutegian eta 15:00etatik 16:30etarakoa arratsaldeko ordutegian. Ostiraletan, udako lanaldian eta Aste Sainduko eta Eguberrietako txandetan, ordutegia 9:00etan hasi eta 13:00etan amaituko da.

Hirugarrena: Eranskinean adieraziko diren baldintzak betetzen dituzten lan-kontratadun langileek eskatu ahal izango dute erabaki honen bidez lehiaketara ateratzen diren lanpostuak aldi batez betetzea.

Eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean lehiatzaileek baldintza eta betebeharrak guztiak

beteta izan beharko dituzte.

Laugarrena: Balioztatu beharreko merezimenduak Euskal Herriko Unibertsitateko AZPko lan kontratudunen plangintza batzordearen, 2013ko uztailaren 4ko Akordioan araututakoak izango dira, hots, administrazio eta zerbitzuetako pertsonaleko lan kontratudunei eginkizunak esleitzeko prozedura barematua ezartzen duen Akordioan, bertan ezarritako mugen barruan.

Eskariak aurkezteko epearen amaierako egunean betetzen diren merezimenduak besterik ez dira aintzat hartuko.

Bosgarrena: Eskaerarekin batera, izangaiek eskaturiko baldintzak betetzen direla ziurtatzen duten egiaztatzeko agiriak aurkeztu beharko dituzte, baita lehiatzaileek beste administrazio publikoetan emandako zerbitzuak, Europar Batasuneko hizkuntza ofizialak eta titulu akademikoak egiaztatu behar izango dituzte, 2013ko uztailaren 4ko akordioan 5.4 puntuan esandaka salbu.

Euskal Herriko Unibertsitateak ofizioz balioetsiko ditu antzinatasunari eta Euskal Herriko Unibertsitateko lan eginiko zerbitzuei dagozkion merituek.

Seigarrena.- Lehiaketara ateratako zereginen esleipenen iraupena Akordioaren 8.1.3. artikuluan adierazitakoa izango da.

ERREKURTSOAK

Erabaki honen kontra lan-auzibidera jo aurreko erreklamazioa jarri ahal izango da Gerentzia honen aurrean hilabeteko epean. Hilabete igaro eta ebazpena jakinarazi ez badiote langileak ezetsitatzat jo dezake erreklamazioa. Erreklamazioari ezezkoa emanez gero, edo ebazpenik jakinarazi gabe hilabete igaroz gero, epaitegi eskudunaren aurrean aurkeztu ahal izango du interesdunak demanda. Demanda jartzeko epea bi hilabetekoa izango da, aurretiazko erreklamazioa ukatu dela jakinarazten den egunetik edo administrazio-isiltasunez ukatutzat jotzen den egunetik kontatuta. Hori guztia, 4/1999 Legeak aldatutako azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legeko 125. artikuluan eta urriaren 10eko Gizarte-arloko jurisdikzioa arautzen duen Legeko 69,2. artikuluetan ezarritakoa betetzeko.

Leioan, 2014ko azaroaren 14an

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2013ko urtarrilaren 30eko erabakia

(2013ko otsailaren 13ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

GERENTEA,

Miren Lorea Bilbao Arteché

